

## TRUEKE AZOKA

Ordua: 17:00 - 20:00

Antolatzailea: Emakumeen Etxea Elkartea

## ARAKNOLOGIA: EHUNTZEA ETA KONTATZEA JARDUTE FEMINISTAN

Patriarkatuak "natura" eta "feminitatearen" artean ezarritako erlazioak, emakumeak, gizonen ondoan, gutxiagotasun-egoera sinbolikoan jarri zituen, gizonak "kultura" eta "historiarekin" lotuz. Ekofeminismoaren eta mitologiaren berrinterpretazioaren eskutik, natura menperatu eraikitako kulturaren ideia hori zalantzan jarriko da. Aracne, Moiras, Atenea edo Ariadnak kulturaren eta artearen beste ideia bat nola ehundu eta kontatu erakutsiko digute. Jainkosa ehuleen hariari jarraituz, ehungintzaren arteko kontakizun feministetara ere hurbilduko gara.

\* TOKIA Cristina Eneako Ingurumen Baliabideen Etxea

Hizlariak: Teresa Alario, Olaya Fernandez

Ordua: 19:00

Hizkuntza: Gaztelania

Antolatzaileak: Emakumeen Etxea Elkartea, Setem Hego Haizea, Cristina Enea Fundazioa

## RANA PLAZAREN ERORKETATIK BOST URTE

2013ko apirilean, Bangladesh-eko ehungintza-erakin baten erorketak 1000 pertsona hil eta beste 1500 zauritu zituen. Herrialde hartako ehuntailerrek duten segurtasun eza agerian gelditu zen beste behin ere. Nazioarteko markarik garrantzitsuenentzako jostea, munduko soldatarik baxuenekin, ogibide arriskutsua da eta gai hori enpresen aurrean ez ezik mendebaldean arropa horiek kontsumitzen dugunon artean ere salatu izan da.

Kalpona Akter sindikalista da eta jostun-laguntzailea 12 urte zituenetik. Zuzenean kontatuko digu emakume beharginen egoera, Rana Plaza erori zela 5 urte beteko direnean.

\* TOKIA Emakumeen Etxean

Hizlariak: Kalpona Akter, Bangladesh Centre for Worker Solidarity

Ordua: 19:00

Hizkuntza: Ingelesa (Itzulpena Gaztelera)

Antolatzaileak: Emakumeen Etxea Elkartea, Setem Hego Haizea, Cristina Enea Fundazioa

## TERRA DE NINGÚ liburuaren aurkezpena

Terra de Ningú liburu kolektibo bat da, 47 ekintzaile feminista eta LGBTk hartu dute parte bertan, bakoitzak artikulu bana idatzita. Herrien burujabetza prozesuei eginiko ikuspegi berritzaileak proposatzen dituzte, eta urte hauetan guztietan ahotsik izan ez duten kolektiboen hitzak jasotzen dira bertan: besteak beste, emakumeak, lesbianak, queer-ak, andaluziarrak, anarkistak, migratzaileak, mugimendu sozialetako kideenak, sexu langileenak...

Gonbidatuak: Laia Estrada (CUP)  
Ares Batle (Gatamaura)

Ordua: 18:30

Antolatzailea: Bilgune Feminista

PROGRAMAZIOA

APIRILA  
2018

Donostiako  
Emakumeen Etxea  
Okendo 9  
Tel 943 48 34 70



**AMARAUNA:SAREAK EHUNDUZ**

Amaraun bat taldean ehuntzea proposatzen du tailerrak, material eta teknika ezberdinak erabiliz. Ehunketa horren helburua ehungintzan, artilea edo lihoa bezalako materialak berreskuratzen, ehun eta arropen berrerabilpenean, ehungintzako lan-baldintza eta bizimodua hobetzeko aldarrikapenetan edo moda jasangarrian diharduten pertsona eta kolektibo ezberdinak elkartu eta konektatzea da.

Izena ematea beharrezkoa da (doakoa da) 943 45 35 26/ cristinaenea@donostia.eus

Ordua: 10:00

Hizkuntza: Elebiduna

Antolatzaileak: Emakumeen Etxea Elkartea, Setem Hego Haizea, Cristina Enea Fundazioa

**ZINEFORUM FEMINISTA**

Ordua: 19:00

Antolatzailea: Emakumeen Etxea Elkartea

**BIZIKLETAZ BIDAIA EGITEN DUTEN EMAKUMEEN ESPERIENTZIEN JARDUNALDIA**

Bizikume taldeko hainbat kidek eginiko bidaia batzuen berri emango digute (Ebroko bidea, Frantzia zehar bidaiak alforjekin eta Marokoko BT emakumeen txangoa). Etorri entzutera eta kafea pastekin meriendatzera.

Ordua: 17:00

Hizkuntza: Elebiduna

Antolatzailea: Bizikume Elkartea

**RESISTENCIAS ECOFEMINISTAS  
DESOBEDIENCIA Y OBJECCIÓN FISCAL AL  
GASTO MILITAR**

Hizlaria: Yayo Herrero, ekintzailea, ikertzailea, FUHEMeko Zuzendaria eta Ekologistak Martxan Elkarteko kidea

Ordua: 18:30

Hizkuntza: Gaztelania

Antolatzaileak: Emakumeen Etxea Elkartea, Setem Hego Haizea

PROGRAMAZIOA

APIRILA  
2018

Donostiako  
Emakumeen Etxea  
Okendo 9  
Tel 943 48 34 70

